

Zalbide, Mikel (2011) ***Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa***. Bilbo: Euskaltzaindia. Jagon Saila.

Liburu honetan egileak errepasso zabala eta zehatza egiten du 1982an *Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea* onartu ondorengo 25 urteetan eman den bilakaeraz, bereziki eskolaren ikuspegitik. Liburua 10 ataletan banatuta dago, eta azken atalean (*X. Azken gogoeta-saioa*), aurreko bederatzitaletan azalduko datuek, bilakaerek eta gainerakoek iradoki ditzaketen zazpi ideia plazaratzen ditu egileak.

Idea horien eta liburuaren berri laburra eman asmoz, ondorengo testuan jaso ditugu zazpi ideiak, eta bakoitzaren azpian, nabarmentzekoak iruditu zaizkigun testu-zatiak aukeratu ditugu¹.

2011ko apirilean

Soziolinguistika Klusterra

X. AZKEN GOGOETA SAI OA (194-204. orr)

X.1.- Euskara ez doa, oro har, berehala galtzera

- ... ez gure bizi-denboran eta ez, itxuraz, gure seme-alaben aldian.
- Mende bi t'erdiko atzera-martxari kontrako irabazpidea erantsi berri zaio (EAEn), eskolaren laguntzaz bereziki.
- ... mintzajardunaren gizarte-moldaerak bilakaera negatiboa ageri du hiztun-kopuruz eta harreman-sarek, belaunez belaun, euskal herrietako eskualde eta herrialde osoetan.
- Euskara ez dago hiltzeko zorian, baina gogor ahulduta dago eta belaunez belauneko jarraipena segurtatu gabe dauka hainbat eskualde, jardun-gune eta harreman-saretan.

X.2.- Elebitasuna, euskaldunon bizi-aukera bakarra

- ... harreman-sare berrien indarra eta dibertsifikazioa kontuan hartzen bada, inoiz baino erdaldunez inguratuago bizi gara euskaldunok.

¹ Testu hau ez da beraz, laburpen bat, baizik eta liburuko X. ataleko testu-zatien hautaketa bat.

- Hizkuntza-soziologiak ezer erakutsi badu azken mende-erdian horixe da, hain zuzen: norbanakook hizkuntza jakin bat egitea (edo beste bat, edo biak) ez da zori itsuaren ondorio, hiztun-talde jakinak hizkuntza horretaz/horietaz baliatzeko duen beharraren eta egokieraren emaitza baizik.

- ... euskara hutsezko hiztun-herri osabetezkoaren formulazioa ez da begien bistako etorkizunean eskuragai.

X.3.- Euskarak “bere lekua” behar du, galduko ez bada

- ... euskarak behar adinbateko indar izango ote duen (...), bere buruari eutsi eta, belaunez belaun transmitituz, espazio fisiko zein soziofuntzional jakinetan hiztun-elkarte osasuntsu baten eguneroko adierazpide izaten jarraitzeko. Hori da galdera nagusia, ...

- “Bere lekua” behar du euskarak, begien bistako etorkizunean bizirik aterako bada gaztelaniaren eta beste erdaren ondoan. Zein da, ordea, “bere lekua”? Erantzuna aski etsigarria da: ez dakigu. Zientziak ez du, oraingoz, galdera horrentzako erantzun baliagarri unibokorik.

- Hizkuntza bi izango badira gure adierazpide eta gure ezaugarri, bistan da biek ezingo dutela espazio fisiko eta soziofuntzional berbera okupatu: ez dago munduan adibide praktiko bakar bat, konpartimentaziorik gabeko funtzionamendu hori belaunez belaun bizirik mantentzen duenik. .../... Zer leku opa diogu hortaz euskarari, eta zer leku gaztelaniari? ... / ... Euskaldunok eta euskaltzaleok izan behar genuke egia horren inor baino jakitunago. Ez dirudi hala denik, ordea: beldurra diogu, zorabioa ez bada, konpartimentaziozko formula bat bilatzeari.

- ... hizkuntzen atzera-aurrerak arakatu dituen aditu-jendeak aho batez dio erreduantzia funtzionaleko elebitasun sozial hori bidera ezina dela belaunez belauneko perspektiban.

X.4.- Perspektiba horretan txertatu behar da eskolako jarduna

- EEN legearen hezkuntza atalak ez du etorkizun handirik, perspektiba zabalago horretan txertatu gabe. Eskolak neska-mutilei eransten dien *plus*-a (etxetik euskaldun direnak alfabetatzea; gehiengo erdalduna euskalduntzea) galdu egingo da eskola ondoko gaztaroen eta heldu-aldian euskarazko harreman-sareetatik deskonektaturik bizi badira.

- Eskolaren hizkuntza-garaipena edo -porrota ez dago eskolan bertan: eskolatik kanpora dago hori, nagusiki. Hori da inor gutxik entzun nahi duena eta are gutxiagok onartzen eta kontuan hartzen duena.

- Lagunarte eta familia euskaldunak sortzea, euskaldun-jende horrek lan-esparruan (partez bederen) euskarazko harreman-sareak eratu eta haietan txertatzea, mila aldiz garrantzi handiagokoa da, Errioxako edo ez dakit nongo A ereduko ikasleak (are Bko askotxo) itsu-itsuan Dra eramatea baino.

- Hurbileko gizarte-bizitzan euskarazko jardun-guneak eta harreman-sareak eratu gabe alferrik dira, ordea, eskolaren ahalegin handienak.

X.5.- Legearen baitan gehiegizko konfiantza jartzeko arriskua

- Behar-beharrezko elementua da legea. Dena ez da legea, ordea.

X.6.- Ofizialtasunaren kontzeptua argitasun eske

- Harrigarria bada ere, hizkuntza biren *ofizialtasuna* oinarri duen marko instituzional honetan *ofizial* terminoaren esanahiaz ez dago zehaztasun kontzeptual handirik: ez formulazio teorikoaren aldetik eta ez, bereziki, bere inplikazio praktikoen ikuspegitik. Dauden definizioak aski inplizituak eta jenerikoak dira oro har, eta administrazio-esparruko jardunari begira emanak daude gehienetan.
- Behar den bezala klarifikatu gabe dago, ene ustez, hizkuntza-politika instituzionalaren esparruan *ofizialtasuna* zer den. .../... Argitze-lanaren beharra bereziki da handia eskola-esparruan.
- Eztabaida askok baino gehiago lagundu dezake horrek, lana ondo eta garaiz egiten bada noski, hezkuntza-alorreko hizkuntza-normalkuntzaren hainbat buruhauste bere onera ekartzen.

X.7.- Azken hitz

- Besterik gustatuko balitzaigu ere eskola ez da, gurea bezain ahuldurik dauden hizkuntzak indarberritzeko orduan, benetako motor ahalguztidun. Eskolak ezin du, bere baitarik eta bere kabuz, belaunaldi berrien erabateko elebitasuna (are nekezago gizartearen luze-zabaleko mintzaldaketa) lortu.
- Euskaldunak euskaldunekin euskaraz (euskara hutsean edo batez ere euskaraz) jarduteko esparruak, harreman-sareak eta situazio komunikatiboak ez dira azken mende-laurdenean nabarmenki indartu. Izatekotan, ahuldu egin dira.
- ... lehen erdaraz bakarrik egiten zen hainbat esparrutan ele bietan, gaztelaniaz zein euskaraz, egiten da orain.
- ... lehen euskara zegoen lekuan (etxean eta familian, auzo-bizitzan eta lagunarte hurbilean) euskara eta gaztelania daude orain. Diferentzia batekin, gainera: erdarak L esferan² egin duen irrupzio hori euskarak H esferan egindakoa baino sendoagoa izan dela. Eta ez dezagun ahaztu, L esferako mintzajardun arrunt-egunerokoa dela, hamarretik bederatzietan, hizkuntzen belaunez belauneko transmisioa (eta, beraz, gurea bezalako hizkuntza ahul-txikien biziraupena) segurtatzen duena.
- “Lehendabizi ikasi, gero erabili” paradigmaren mende gauden artean jai dugu. Erabiliz ikasten da, hemen eta nonahi. Hori baino ikuspegi integratuagoa behar da, ezer lortuko bada euskalduntze-alorrean: bai azken orduko etorkinekin eta bai, nola ez, hasieratiko vasco-erdaldunekin. Etorkinen eskola bidezko euskalduntze-saioen eragimena mugatua da oso, eta hala izango da gero ere, saio horrek beren bizi- eta lan-ingurumenetik deskonektaturik jarduten duen artean.

² L eta H esferak, ingelesezko **Low** (baxua) eta **High** (altua) dira.